

Karta Museoak “Egin amets... Musika ibilaldia jauregian” antolatu du Santa Zezilia eguna dela eta

Bi emanaldi izango dira, ostiralean, azaroaren 22an, 20:00etan eta 21:30ean, eta Boreas Cámara ganbera musikako taldeak eta Arantza Cordero narratzaileak hartuko dute parte

Gasteiz, 2019ko azaroaren 20a.- Arabako Fournier Karta Museoak “Egin amets... Musika ibilaldia jauregian” kontzertua antolatu du musikaren patroia den Santa Zezilia eguna dela eta. Bertaratzen direnek ganbera musikako Gasteizko Boreas Cámara taldearen musika eta Arantza Cordero narratzailearen ahotsa entzun ahal izango dituzte, Bendaña jauregian bisitaldia egin bitartean. Bisitaldian zehar museoaren egungo egoitza den XVI. mendeko eraikinetik pasa diren artista eta musikariak gogoraraziko dituzte.

Izan ere, Bendaña jauregia hutsik egon da ofizialki historian zehar hainbat eta hainbat momentutan, eta hala islatzen dute XX. mendeko hainbat argazkik, baina une horietan ere eraikinak bizitza propioa izan zuen. Hainbat artista pasa ziren bertatik eta artez eta musikaz bete zuten. Esaterako, 1916an, hainbat gau kontzertu antolatu zituzten. Eta hainbat margolari eta eskultorek tailerrak izan zituzten bertan garai ezberdinetan.

Horregatik, Santa Zezilia eguna dela eta antolatu duten emanaldiaren bidez, artista eta musikari horiek gogorarazi nahi dituzte eta, aldi berean, eraikin bikaina erakutsi. Jarduera azaroaren 22an izango da, 20:00etan eta 21:30ean, eta beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea 945203700 telefonoan.